

ttipi-ttapa

1990eko Maiatzak 24

38. zenbakia

dohain banatzen da



Uxane Ikastegia:

"guttituendak erxebizitza bat
beharrezkoa da"

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Erakusketa

EUSKARAREN EGOERA BORTZIRIETAN

Estudio Soziolinguistikoaren laburpena

BERA	Kultur Egunen barnean, ekainaren 3tik 9ra bitartean, Gure Txokoa Elkartean
-------------	---

IGANTZI	Ekainaren 10tik 16ra bitartean, Biltoki Elkartean
----------------	--

ARANTZA	Ekainaren, 17tik 23a bitartean, Herriko Etxeko Arkupean
----------------	--

ETXALAR	Kultur Egunen barnean, ekainaren 24tik 30era bitartean, Herriko Plazan
----------------	---

LESAKA	Kultur Astearen barnean, uztailaren 1etik 6ra bitartean, Herriko Etxean
---------------	--

NON-ZER

4. Beharrezko telefonoak.

5. Agenda.

6. Irakurleak mintzo.

7. Hontaz eta hartaz.

9/21. Herriz-herri; Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara,, Goizueta.

22. Erreportaia. R. HARRIBILAGA

24. Elkarriketa. M. ILARREGI

26. Kirolak. MATTARI - ROMAN

28. Osasuna. PELLO ASTIZ.

29. Aro berriaren atarian

F. ALTZUGUREN

30. Merkatu Ttikia.

31. Denborapasa. ENBIDO

Duela hamar urte, ASPACE era-kundearen babespean, Beran "Uxane Ikastegia" zabaldu zen. Bere zeregina, Bortzirietan dauden pertsona gutxituak zuzpertzeta eta gizartean normal integratzea da. Lan bikaina egiten ari dena. **22. or.**



Sendabelarrek eskeintzen dituzten ahalmenak eta nola erabili behar diren nahi den gaixotasuna sendatzeko, ez da gauza berria Kari Agirrerentzat. Halaxe dio egin zaion elkarriketan... **28. or.**



"Aizkolaritzarako zaletasuna mantentzeko, aizkolari onak behar ditugu" dio Gabriel Saralegik; berriki Nafarroako Kirol Federazioaren zuzendari aukeratu duten Leitzar honek. **24. or.**



Lehen aldiz, Baztan-Bidasoako Herri Kirol Txapelketa antolatuko da. Inskripzioak eta informazioaz jakiteko, 63 70 05 Telefonora deitu eta Mattari Altxuartez galdegin. **27. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Isabel, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Iban Isasi, Juainas, Koro Etxeberria, Koro Irazoki, Mañone, Leitzako Ikastari Euskaltegia, Olain Elkartea, Mikel Ilarregi, Mattari, Mikel Ibarrola, Pello Astiz, F. Altxuguren, Nafarroako OMT eta Enbidok

Inprimategia: Jomisa (Irun)

Tirada: 2.700 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du halabeharrez, bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe594300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun587039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren594183

Sunbilla594283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea251500

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz594242/594342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leizaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:


Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero594335/594336



Cannes 90

Munduko zinema festibal ospetsu eta hoberena amaitua izanen da ale hau eskuratuko duzun orduko.

Bizi diren zinema zuzendari hoberenetako batzuk aurkezten dituzte beurek egindako azken filmak; horrela, festibal honen kategoria bertze urtetan baino gehiago handituz. *Programa Ofizialean* Kurosawaren *Dreams*, Wajdaren *Korczak*, Ken Loacheren *Hidden Agenda*, Taviani anaien *Le soleil meme la nuit*, Felliniren *La voce della luna*, Gaviriaren *Rodrigo D. no futuro* (hau errebelazioa izan daiteke), eta bertze zenbait dira programa ofiziala osatzen dutenak.

Bertze sekzio interresgarriak ere badaude: *Quinzaine des realisateurs*, hau da; zuzendari eta gidoilari berriak ezagutarazteko sekzioa. Aurreko urtetan sekzio honi esker ezagutu genituen: Mira Blair-en —aurten bera juradoan— *Salaam Bombay*, Indiakoa; Neil Jordan-en *Monna Lisa*, Britania Haundikoa; Idrisa Quedraogo-ren *Yaaba*, Burkinakoa ...

Aurten ekialdeko zinemagintza izanen dugu sekzio honetan jabe ziur aski, nahiz eta; Irlanda, Egipto, Bretaina Haundia, USA, Suiza eta Españak ere, bere filmak aurkeztu.

Un certain regard dugu festibal honen hirugarren sekzioa, hau da, bertze ikuspuntu batetik sarituak izanen diren filmak. Hemen ere 22 filma aurkeztu dira munduko bertze hainbertze erresumetatik..

Semaine de la Critique eta *Perspectives*, garrantzi gutxiagoko sekzioak dira, hauetatik kanpo; filme erosle, saltzaile eta banatzaile ugari joaten da Cannes-era mundu guztitik; zinemagintzaren merkaturik haundiena bihurtzen delako Cannes maiatzaren 10etik 21era.

25 ORTZIRALA

—**Leitzan**, goizeko 11etan "Abenturak eta kalenturak" filma; arratsaldeko 5etan, txokolatada; 5.30etan Ajedrez plaza; 7etan, hitzaldia: Astronomia; eta 10.30etan, Jazz-a plaza.

—**Lesakan**, Diapositiba proiektzioa "Mendiaren bidez beste kulturak ezagutzen", gaueko 10etan.

26 LARUNBATA

—**Leitzan**, goizeko 10etan ume eta gazteentzat, Esku-lan tailerrak; arratsaldeko 4.30etan, Herriko Ikasleen antzerki saioak.

—**Igantzin**, gaueko 9.30etan, "Siankope Brothers Jazz Band" taldearen aktuzioa.

—**Elizondon**, Bulgariako Ballet Nazionalaren ekitaldia frontoian arratsaldeko 8etan.

—**Lesakan**, mendi ateraldia Domiko eta Ikatz-Zulo garbitzera goizeko 8.30etan.

Eguerdiko 2.30etan, bazkaria eta trikitixa Arranon. Argazki lehiaketaren sari banaketa.

27 IGANDEA

—**Leitzan**, X. Eskulangintza Erakusketa.

30 ASTEAZKENA

—**Elizondon**, arratsaldeko 8etan, Literatur Mintzaldiak Baztango Udalak antolatutako Arizkunenean; Hizlaria: Joxe Mari Iturralde.

1 ORTZIRALA

—**Lesakan**, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 5etan Herriko etxean.

—**Elizondon**, rock kontzertua Fortenea ostatuan. (Kanka)?

2 LARUNBATA

—**Goizuetan**, Anje Dualderen kantandia, frontoian.

—**Beran**, Eztegarako frontoian, rock jaialdia. M-ak, Kanka eta Pitutara taldeekin.

3 IGANDEA

—**Beran**, Larun Mendi Taldearen ateraldia: Arlas - Kakueta (Zuberoa).

—**Beran**, Labiaga Ikastolan bertso emanaldia. Gure Txokoan. Azterketa Soziolinguistikokoaren erakusketa ibiltaria.

—**Etxalarren**, arratsaldeko 6etan, Eskola zaharretan, "Ama begira zazu" antzerkia.

GOARDIAKO BOTIKAK

—**Maiatzaren 26-27an**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

—**Maiatzaren 2-3an**, Arantzaz, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

TXAPELKETAK

—**Baztan Bidasoako Herri Kirol Txapelketan** parte hartzeko epea, ekainaren 8an bukatzen da. Parte hartu nahi dutenek, dei dezatela Baztan, Malerreka, Leitzarar edo Bortzirietako Kirol Zerbitzuetara.

ETXEGARAI

Telebistak eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
konponketa tailerra

ELEKTROGAILUAK
BIDEO KLUBA

Eztegara, 4 Tfnoa: 63 05 70 BERA

Laia

MUSIKA DENDA

San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota guztiak

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA

Erdaldunei errespetoa

Mila aldiz entzun dut hori; eta euskaldunoi noiz gordeko digute errespeto hori?

Lesakako biztanlegoaren % 75a euskalduna da baina hori dirudienez ez da inon kontutan hartzen, zeren eta kartelak egiterakoan eta denak ongi ulertzen dugulako erdara hutsean egiten bait dira. Hau da hain zuzen berriki Lesakan gertatu den kasoa, ermita ondoan dagoen iturriari honelako kartelatxo jarri diotelarik: *"sin garantia sanitaria"*.

Hasteko oso gusto txarrekoa iruditzen zait iturri polit honi erdi-er-

dian kartela paratzea, bazter batetan jar daiteke.

Baina harira joanez, zertarako daude euskara mankomunitateak, batzordeak e.a. gero edozeinek nahi duen moduan eta deus ere kontutan hartu gabe egiten baldin baditu gauzak?

Guttienez eta % 75 horri errespetoa gordetzeagatik kartelaren % 75a euskaraz beharko luke izan.

Edo bertzela bertze gauza bat uler daiteke hortik, euskaldunentzat ur honek garantia guztiak betetzen di-tuela alegia.

Gutun honekin proposatu nahi nuke, berriz ez gertatzearren, herriari zuzenduta dauden kartelak —eta are

gehiago leku ofizialetatik etortzen badira— egin baino lehen, dauden bideak erabiltzea, euskara koordina-tzailea, batzordeak, mankomunita-tea... hauek behar diren erizpideak markatu eta horren arabera egin.

F. ALTZUGARAI


Kaixo guztioi:

Hemen gaude Torremolinosen, kriston beroa egiten du eta erreak gaude. Gauero kriston mozkorra bil-tzen dugu. Hemen gauetan andaluz baino euskaldun gehiago biltzen gara Andaluzek ez dakite guk bezain ongi besta egiten. Diskoteka zikin batzu-rekin aski dute.

Baguzi eguzki hartzera. Agur

Jaione, Maite, Arantxa, Ana, Maria
Jose, Kristina

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.



Baztan, Bidasoa eta Male-rrekako etxe, baserri, pisu, bajera, eraikitze lurrak eta eremua duten borden berri ematen da

**Jose Antonio Elizondo
EZKALO**

Tfnoa: (948) 59 40 54 Intzakardi, 8
DONEZTEBE



Irakasle kontratatatu eta interinoen problematika

Nafarroako Gobernuaren behin behineko kontratatatu eta MECeko OHOko irakasle interinoen kolektiboak jakinarazten du:

Nafarroako Gobernuak hezkuntza kompetentziak laister bere gain hartuko dituela eta egiten ari diren negoziaketetan, argitasun falta izugarria nabaritzen dugula, horiek kezka haundia sortzen digularik.

Negoziaketa prozesu honetan, Vicente Ripa eta Guillermo Herrero jaunak jotzen ditugula arduradun

nagusitzat gure kolektiboari dagokionean, beraz gure etorkizunari buruzko egoeraren azalpen zehatzak eta argiak eskatzen dizkiegu. Baita ere, gure kolektiboko ordezkariak prozesu honetan partaide zuzenak izan daitezen eta iharduera guztien berri izan dezaten eskatzen dugu.

Konponbiderik ikusten ez dugun bitartean, gure mobilizazioekin jarraituko dugu.

Ana Erasun Ariztegi
KOLEKTIBOAREN arduraduna



Euskararen egoera Bortzirietan

Bortzirietako euskararen egoeraren berri ematen diguten panelen erakusketa eta Siadecok egindako azterketa soziolinguistikoaren laburpenaren erakusketa, ekainean zehar eginen da Bortzirietako herri ezberdinetan, herri bakoitzean asteburu bat.

Komeni da agian, erakusketa honen edukia zertxobait zehaztea.

Erakusketaren oinarri eta funtsa Siadecok egindako azterketa soziolinguistikoaren datuak izanen dira; gehigarri gisa lanaren laburpena—liburuxka—.

Datu hauekin batera Bortzirietan euskararen alde egin diren zenbait

gauza bilduko dira: Euskara Batzordea, Ikastola-eskola, Euskaltegia, *tti-pi-ttapa* ... eta abarrek ekarritako materiala erabiliko da horretarako.

Ondoren Euskalerriko bertze zenbait herrietan euskara normalizatu nahien egin diren zenbait ekintzen materiala azalduko da.

Azkenik erakusketa osatzeko olerki eta argazkiak erabiliko dira.

Erakusketa herritarrak montatua izan da eta herritarrentzat batez ere.

Jendea animatzea bertzerik ez zaigu falta.

JON GORROTXATEGI
Bortzirietako Euskara
Zerbitzuko Arduraduna




106 haurrek hartu dute parte Lesakako Beti Gazte-k antolatutako "Ezagut dezagun Lesaka" lehiaketan. Sarituak, A mailan Roberto Villadanos, B mailan Ibai Mitxelena, D mailan, Javier Yanci eta sari berezia Ibai Mitxelenarentzat.



Tfnoa: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



GOIZUETA
KIROLAK

Kirolak
Mendirako artikuluak

Beheko Plaza 10 LESAKA

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 58 70 00

TRANSPORTES DEL BIDASOA S.C.L.

DELAGAZIOAK:

BULEGO NAGUSIA

Bittiria 32 - Tfnoa: 63 78 75
LESAKA

BARCELONA
MADRID - Coslada
VALENCIA
SEVILLA
ZARAGOZA



BAZTAN


ALTZARIAK

zurgindegia

✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako
mobleak

✓ Koltxoiak

121 errepide nazionala, 54. km
IRURITA - BAZTAN



Lantegientzat,
katalogo bitarteko
salmenta modu berria

Calzados **BERA FLOR**

Paseo Eztegarra, 19 - BERA DE BIDASOA

BATZOKI

JATETXEA OSTATUA

Tfnoa.: 63 79 31

Lesaka

FONDA SATURETXEA

Tfnoa.: 63 70 27

LESAKA

VALPADANA

TRAKTORE ARTIKULATUAK ETA TRINKOAK
20 HPtik 80HP BITARTEKOAK



NAFARROA OSORAKO BANATZAILEAK
GUILLERMO TXOPERENA eta LUIS GOÑI GARISOAIN

IGANTZI - Tfnoa (948) 63 79 95

Futbol zelai berria eta tenis pistaren egitasmoen gauzabide lanak hastear



Piszinaren gainekoaldean joanen da tenis pista

ROMAN HARRIBILAGA

Bertze zenbait arlotan bezala eta azpiegitura hobetu asmoz Udalak egindako plangintzaren arabera, kirol instalakuntzei dagokienez ere polikiroldegiaz gain futbol zelai berria eta tenis pistaren egitasmoen gauzabide lanak hastear aurkitzen dira.

Oraingo Toki Ona futbol zelaian polikiroldegia pabilioia eraikiko denez gero, berriaren kokapena Alzate auzoko hegoaldean, Matzada alderditik hurbil, izanen da. Bestalde, Toki Ona alderdian dagoen igerilekuaren aldagelen gaineko orubean joanen da tenis pistaren kokapena.

Ezaugarri garrantzitsuenak

Idatziriko egitasmoan oinarrituz, 100 x 60m neurriko futbol zelaia egingen da, sei kaleko atletismo pista, mailak, eta aldagelak eta zerbitzuak, eta ostatu eta biltegirako eraikinak ondoan. Zelaia, 30zmko lodiera duen legar geruza, 20zmko landa-

re lur eta ihintzaldiz urezta daitekeen belarrezko ereintzaz eginga izanen da. Bere inguruan joanen den atletismo pista berriz, "denabat" azpionarri atxekidura geruza, asfalto samalda (aglomeratua) eta gaineztadura sintetiko leunketaz prestatuko da. Baita ere, 1.400 eserleku inguru edukiko dituzten mailak ormigoiez izanen direlarik aurreginak.

Eserleku mailen azpiko aldagela eraikinak edukiko ditu, gainera, zerbitzuak, erizaindegia, biltegi ttikia eta noizik behinkako erabiliko den txarteldegia; sarbidea kale mailen kokatuko da eta futbol zelaia eta atletismo pistaren artean, lanken aurrean, instalakuntzetarako irtenbidea. Mailen bi aldeetara, zelaia erpinetan, biltegi eta jendearentzako zerbitzuatarako eraikinak jarriko dira; azken hau ostatu ttiki batekin. Futbol zelaia eta atletismo pista etorkizunean argitu ahal izateko ezar-kuntza elektrikorako bideraketa ere bildurik dago egitasmoan.

Adjudikatu gabe dagoen egitasmo oso honen aurrekontua 124.477.660 pezetatakoa da, BEZaz gain.

Tenis pista

Bertzalde, "Instalaciones Deportivas", INDE, entpresak egingen duen tenis pista arauzkoa izanen da, 36 X 18mko neurriekin. Egitura 15zmko legar geruzakoa izanen da; bere gainean 6zmko ormigoizko bi geruza. Marra zuri barruko azalera gorri eta kanpokoa berdez margotuko dira. Pista osoa behe orma eta 4m goiera izanen duen burdin sare batez inguratuko da, baita 2m goiera eta hiru ateko burdin hesiz ere. Egitasmoaren aurrekontua 2.250.350 pezetatakoa da, BEZaz

"Bera" izena berretsia

Udalbatzak ere, osoko bilkura arruntean hartutako erabakian, gure herriaren izena "Bera" izan dadila berretsi du. Era honetan, espainiar Gobernuako Herri Administrazio Ministeritzatik "Registro de Entidades Locales" delakoan "Bera-Vera de Bidasoa" izendapena sartzeko egindako aldaketa eskaerari erantzun dio Udalak. Honen ustez "de Bidasoa" gehigarria artifiziaia omen da eta gure herri euskaldunen-tzat izen egokiena "Bera" dela gaineratuz.

Gatazka honen inguruan, Berako historia bildurik agertzen diren agerietan argi eta garbi ikusten denez nola "Vera" v-rekin 1306an hala "Bera b-rekin 1316an bertze zenbait aldiz 1622an da erabiltzen den izen bakarra. Aldaketa, espainiar Gobernuak 1916ko uztailaren 27an dekretuz, egin zuen Estatuko Vera (Almeria), Vera de Moncayo (Zaragoza) eta Vera de Erque-rekin (Tenerife) nahasketarik sor ez dadin. Udalaren eritziz, helbideetan "Bera (Nafarroa)" jarritz gero, ez omen da horrelakorik emanen..

Lesakako Laminazioetako zabalkuntza

Udalean dauden alderdiek beren eritzia ematen dute

M.K.T.

Fabrikaren zabalkuntzak, herrian zenbait eztabaida sortu ditu, hori dela medio, eta argitasun pixkat emateko asmoz Udalen dauden alderdiengana jo dugu galdetegi honekin:

1. Ez al da nahikoa fabrikak nabe bat egitea, jakinik horrela konbentua ez dela bota behar?
2. Fabrikak, konbetuaren lur eremuak *Normas Subsidiarias*etan duen izendapena aldatu nahi du. Aldaketa honen truk zer eskeintzen dio herriari?
3. Ba al dago garantiarik behin konbentua botaz gero, fabrika ez dela gehiago zabalduko?

EAJ-PNV

Jose Luis Etxegarai (alkatea)

1. Fabrikak eskaeran agertzen du nabe bat egiteko asmoa, eta etorkizunean bigarrena. Galdetu egin zaie bigarren nabe horretan zer egin behar duten eta almagaz bezala erabiltzeko asmoa dutela erran zuten.

2. Bueno fabrikak egin du oferta bat, nik uste ez dela balidua baizik eta, mehoratu behar dela negoziaketan batetan eta gauzak ateratu daitezkeela aldagak hori dela medio. Negozioaketa hori izaten ahal da nahi bezain zabala, eskatzen ahal dira alde batetik balioa duten gauzak, errate baterako terrenoak baina denbora berean kontaminazioaren arazoa eta horien aurkako neurriak. Gainera uste dugu behartuak gaudela hori dena sartzea eta langabeziarena ere. Guk langabeziaren problema ikusten dugu inportateena eta kontaminazioarena.

3. Bai, uste dugu garrantzia gehiago izanen direla orain baino, zeren nahiz eta konbentua hori egon heke na da. Konbentua ez da "Monumento Historico Artistico" ez da, Principe de Vianak horrela adierazi digulako. Fabrikak espetzen ahal du gehixeago eta gero aintzina egin, orain hori dena aldatzen baldin bada eta urbanizatu entregatu Udalarari, ezin izanen dute aurrera egin.

HB

"Soltzan" Txoperena (kontzejala)

1. Guretzat nahiko izanen litzateke nabe bat egitea jakinik 2. nabe honen funtziorik ez dela aipatzen. Fabrikak bi gauza lortu nahi ditu gure ustez, bata lur industrial gehiago eta bertzea konbentua botatzea, horrela ez moldatu behar izateko Principe de Vianak behartuko bait litzuzke horretara.

2. Momentu honetan ez du deus eskeintzen, esperientzia oinarriturik inoiz ez dio deus berezirik eskeini. Denbora bateko lana kontratatzerakoan, azkeneko kontratazioan kanpokoak hartu ditu 22 eta 2 lesakar gutti gora behera edo horrelako proportzioa. Bertze aldetik hori dugu kutsaduraren arazoa behin betirako irtenbidea jarri ez diona.

3. Konbentua Monumento Historico Artistico izanik muga izan da, hori botaz gero ez dago deus hori garrantzizko duena. Orain lortzen baldin bada hori botatzeko baimena, nork daki etorkizunean ere ez duela lortuko?

Bertzaldetik ez dugu ulertzen nola ematen ahal den konbentua botatzeko baimena hain erraz. Bereauko zubia edo Biurgaraikoa botatzeko eman ez zutenean.

EA

(Alderdiak bidalitako idazkia)

Gure usteetan ez du garrantzia berezirik, printzipioz Lesakako *Norma Subsidiarioen* behin behineko aldagak onartzeak ikusirik Laminacionesek erakutsitako jarraia ona operazio hau globalki harturik herriarentzat mesegarria izan dadin.

Enpresarentzat zabaltze posibilitateak itxi egiten dira, eskarian zehazturiko eremuaz kanpo dauden lurak Udalaren eskutan behar bezala urbanizatuak geratzeko bait lirateke.

Halere, Lesakako EAK garrantzizkoak kontsiderantzen ditu izen aldagak hori onartzeko eraman behar diren negoziaketak eta horretarako bere indar guziz lan egingen du herriarentzat ahalik eta gehien lortzeko.

Jubilatuen eguna

PELLO APEZETXEA

Maiatzaren 6an herriko jubila-
tuak izan ditugu protagonista, beren
buruak egun osoan barrena gaztetu-
rik erakutsiz. Meza nagusian lehe-
nik, parrokiako kantari talde finaz
gain txistulariak ere lagundu zutela-
rik ospakizunean. Jarraian, herriko
dantzariak eskeni zieten gure adine-
koei beren omenaldia plazan. Egu-
raldi argi eta goxoak ere parte hartu
zuen, iaz ez bezala hagitz atsegina
baitzegoen plazaldea, non geroxe-
ago lauorgeri mahaikide bildu ziren
bazkaltzera, pilota-leku estaliak
ematen duen itzalpean. Zopa eta
legatza saltsan, bildoski errea, tarta
eta izozkia, zein baino zein goxo-
goa, aski asetzeko eta ez kaltetzeko
menu egokia zen.

Gazteagotan agian aukera haun-
dirik eduki gabekoei ere soinu go-
zoaz disfrutatzeko biderik ez zi-
tzaien falta izan, ezta dantzaldia
behin eta berriz burutzeko ere, soi-
nujolea ilundu arte aritu baitzen.
Iraun dezala umore onak.



Lehenik meza eta bazkaria, arratsaldean dantzaldi ederra

Zahar etxea prest dago

Jateko nahiz lo egiteko toki ba-
ten beharrean dauden herriko zaha-
rrek, prest daukate lau lagun sartzen
ahalko diren bizilekua, gero bertze
hainbertzerentzat ere izanen delarik,
behar den momentuan. Garbitu,
pintatu, solairua plastikoztatu, tele-
fonia, argia, dena martxan. Etxeeta-
ra igorri berria du paper bat Udalak,
zerbitzu horren berri emanez. Nahiz
eta bizilekua prest egon, etxeak
badauka aspalditik teilatu berritza-
ren beharra, baita kanpoko pareta eta
leiho pintatzearena ere. Berehala
gainean dugun uda honetan bi gau-
za horiek burutuko omen ditu Uda-
lak. Dena den, ez da horretan buka-
tuko etxe horretako moldaketa: le-
hen solairuan, non ikastola baitago

orain, jublatu guztientzat balioko
duen egongela eta biltokia gauzatu-
ko da, bere ostatu eta bainugelez
hornituko dena. Eta hori ere aurtan.

Erakusketa prestatzeko deia

Ekainean etnografi erakusketa
burutzea pentsatu dute Euskara
Batzordekideek. Etnografi izen ho-
rren azpian haxe dago: gure herri-
ko lehengo altzari (mueble), ontzi,
lan tresna, arropa etabar. Etxeetan
horrelako zerbait kontserbatu bada,
bildu egin nahi dute eta kanpoan
paratu, egun batez bederen jendeak
ikus ahal dezan. Euskara Batzordeak
dei egiten die xoko honetatik etxa-
lartarrei, aipatutako zerbait etxean
badaukate eta egun baterako uzteko
prest baleude, erran diezaiotela,
faborez.

Hiru pista aurtan udan berrituko dira

OSKAR TXOPERENA

Joan den astean egindako
subastan "Canteras de Yanci" k
aurkeztu zuen presupuestorik mer-
keena Igantziko zenbait pistatan

zolu berriak botatzeko, 13 milioi
inguru gostako da lana eta aurtengo
udan egin beharko da. Dakizuen
bezala hiru dira moldatuko diren
tramoak: Herriatik Galartzako bida-
gurutzeraino, Aizalegitik Bixinon

etxeraino Antxontxeberrian barna,
eta azkenik San Juandik Mendibile-
ko bidegurutzeraino.

(bertze aldean segitzen du)



Eskolako atariaren moldaketa

Igantzik Udalak, eskolako ataria hagitz egoera txarrean dagoela ikusirik, Nafarroako Gobernuak eskolak moldatzeko subentzioak hartzeko ireki duen deialdira bere

proiektua aurkeztea erabaki du.

Lehenago egin zen obra guztia zuloz beteta dago eta gainera zola, euriaren eraginez izugarri latza dago. Eskaera onartzen badute aspaldiko behar haundi bat bete ahal izango da.

**Jazz Jaialdia**

Datorren 26an Arratsaldeko 9,30etan Jazz Jaialdi eder bat dastatzeko aukera izanen dugu Igantzik Biltokin.

Dueal gutti Udazkeneko Errondaren barruan "Sebastiana" Jazz Taldea genuen entzungai. Oraingoan urrunagotik datozkigu jazz musikariak, Zinbawekoak hain zuzen, "Siankope Brothers Jazz Band" da talde honen izena eta "New Orleans" eko jatorrizko jazz jotzen omen du.

Guzti hau Udaberriko Jira-Biraren barruan antolatua dago eta ez igantziarrak bakarrik baizik eta inguruko jende guztia dago gonbidaturik.

ARANTZA**Herriko bestak prestatzen**

JON LARRETxea

Oraindik denbora aunitz falta bada ere, dagoeneko hasiak dira Amabirginetako bestak prestatzen. Izan ere, urte sasoi horretan leku guztian bestak direnez, erne ibili beharra dago musika talde eta ikuskizunak kontratatzerako orduan. Musika taldeak hauek izanen dira: 15ean "Izan", 16an "Arkaitz", 17an "Gau-bela", 18an "Arkaitz" eta 19an "Akelarre".

Musika taldeez aparte, 18an goizetik, herri kirolak jartzea pentsatzen dute, "Zelai" harrijasotzailearen parte hartzea ziurtatuta dago honez gero. Gero, eguerdian, herri bazkaria eskoletan bertsolariez alaiturik; Sebastian Lizaso, txapelkun ordea bertze batekin etorriko delarik.

19an berriz, Euskadiko 4 aizkolari hoberenen arteko exhibizioa antolatzea pentsatzen da. Honetaz gain, Herriko Pilota Txapelketaren Finalak, pilota partidu bat afizionatuekin, haurrentzako jokoak e.a.



antolatzea pentsatzen da.

Ikusten duzuen bezala, lerro nagusiak dagoeneko eginak badaude ere, bestak antolatzeko arduradun den zinegotziak abisu haxe ematea eskatu digu: "Herriko edozein talde edo pertsonen aportaziotara idekiak daudela, eta aurre-programa hau ikusiz, norbaitek ideiarik edo edozein modutako aportaziorik egin nahi balu, lehen bait lehen Udalararekin kontaktoan jartzea, eta gogo

onez hartua izanen dela".

Gimnasia ikastaroa

Iraupen Soinketa edo "mantenimendu ikastaroa" ari dira ematen Eskoletan eta izugarrizko arrakasta izaten ari omen du. Hogeiren bat lagunek hartzen dute parte. Uja lesakarra monitore dutela. Joaten diren batzuk erran digutenez, arrunt gustora ibiltzen omen dira. Bazen, herriotan ere, gorputza zaintzen has-teko garaia.

Mindegia-Etxeberria, aizkora desafio gogorra

Ekainaren 3an Donezteben, milioi laurdena jokoa

PATXI PETRIRENA


Apostu gogorra eta serioa, desafioen ezaugarri guziak betetzen dituen, jokatuko dute heldu den ekainaren 3an bi aizkolari gazte hauek. Alde batetik, Javier Mindegia, Mugairekoa, Mikel Mindegia aizkolari ospetsuaren iloba, eta bertetik Felix Etxeberria, Sunbillaiko Dan-tzainekobordakoa, mendi lanean zaildutako mutila. Bakoitzak 250.000 pezeta jarri ditu jokoa, horietatik 100.000 dagoeneko gordelariaren esku daudelarik eta gainerakoa apostu egunean eman beharra. Horrez gain, sarreretatik aterako den dirua, gastuak kenduta, bien artean banatuko da.

Egin beharreko lana hauxe dute: kanaerdiko 10 enbor ebakitzea. Egurra sunbildarrak eramane du, eta kontratoaren arabera pago hezea eta adar-begi agerikorik gabea behar du izan, bere azal eta guzi.

Aizkolari bakoitzak bi laguntzaile izan ditzake, eta aipagarria da

Nafarroako Herri Kirol Federazioak begiratuko duela apostua, amaieran antidoping kontrola ere egingen delarik. Hasieran genioen bezala, serioitasun guziz antolatutako apostua

da, eta bi jokalarien prestaketa araberakoa izanen delakoan gaude. Bietako zein aterako den garaile Ekainaren 3an, eguerdiko hamabi t'erdietatik aintzineraz ikusiko dugu.



Bariantearen afera bizi bizi. Orain dela hilabete pare bat sahiesbidearentzat A aukera bereizi baldin bazen ere, azken plenoan hasierako puntura itzultzea erabaki zen; eta konponbidea bilatzeko, herriari aukera guzien berri eman ondoren referendum batean erabakitzea ezker edo eskuin aldetik egin behar den.

Bortz langile kontratatuko

TXEMA ALDABE

Hemendik abudo, 5 langile, 4 peoi eta ofizial bat kontratatuko dira, Doneztebeko Udalak egindako *memorian* agertzen diren lanak egi-

teko. INEMek onartu egin du memoria, horrela diru laguntza berak emanen duelarik.

Lan hauek egiten parte hartu nahi duten guziek aski dute Doneztebeko Lan Bulegoan beren izena ematea.

Ondoren, INEMeko langileek egingen dituzten frogak gainditu behar ko dituzte (psikoteknikoak, e.a.)

(bertze aldean segitzen du)



Partidurik galdu gabe, Doneztebeko Erreka txapeldun

TXEMA ALDABE

Erreka eskubaloiei ekipoak izugarrizko kanpaina burutu du bukatu berria den txapelketan. Estatuko II. mailan kokatutako taldean baina nafar ekipoen osatuta dagoen talde honetan 22 partiduetan ez du bakar bat efre galdu, bat berdindu duelarik. Ia ezin da gehiago eskatu, batzuetan bertxe partiduko 27 gol lortu bait ditu bere alde eta 17, berriz, bere kontra. Hasiera-hasieratik, Txomin Mindegia eta Luis M. Goñi entrenatzaileek zuzenduta gogor hasi ziren. Azkenera arte, Txantrea eta bera pare-parean ibili ziren, lehenbiziko itzulian Txantrearen kanpoan berdindu bait zuten. Baina gero, berdintasun hori hautsi zen. Doneztebeko partidua irabaziz, Txantreak ere partidua guztiak irabazi zituen. Donezteben jokaturakoa ezik. Beraz, Txantrea bigarrena hiru puntutara.

Kanpaina hau burutu ahal izateko, Errekak 14 jokalaririk behar izan

zituena nolabait hauexena delarik meritoa. Luismi Apeztexea eta Johan Artazkoz atezain lanak betetzen eta Rafa, Emilio eta Txutxin Zabala, Manu Labiano, Karmelo Rekarte, Pello Iribarren, Juan Jose Gastesi, Shanti Kasajus, Bidal Etxarte, Piti Elizalde, Jose M. Antzizar eta Javier Mariezkurrena jokalaririk. Aipatzekoa da ere Pello Martinez presidentek egin duen lana, zeozer zela eta

beti gainean eta ekipoa zuzentzen ibili baita.

Pausurik haundiena eman ondoren, orain helburu nagusia zera dute: heldu den urtean lehenbiziko mailan jokatzeko. Horretarako, Maiatzak 31 eta Ekainak 1, 2 eta 3an Asturiasen jokatu dute txapelketa berri bat. Asturias, Castilla-Leon, Cantabria, Galiza, Euskadik ordezkariak jokatuko dutena, alegia, Errekaz aparte.



ITUREN

Hemezortzi miloi terdi frontoiaren estalketarako

IBAN ISASI

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Sailak eta MEC-ek, Iturengo frontoiaren estalketarako, 18.500.000 pztatuko laguntza eman dute. Hau, orain dela aste batzuk agertu zen prentsan, eta ikusten denez, Nafarroan eman dituzten laguntzarik haundienetakoa da.

Arau Lagungarriak edo Norma Subsidiarioak

Maiatzaren 11ean, ortzirala, bileta bat egin zen Iturengo Udaletxean, bertan Jose Ignacio Arribas, Hiri-gintza edo Urbanismoko arkitektoak, arau edo Norma Subsidiarioen

aurkepena egin zuen alkate eta zinegotzien aurrean. Erran beharra dago, Arau hauek 20 egunez egonen direla jendea zaintzinean Udaletxeko idazkaritzan.

Ekainaren 10ean Trinitate Eguna

Urtero bezala Trinitate eguna deitzen den besta ospatuko da ekainaren 10ean, igandea. Hala ere nahi duenak, aurreko egunean, larunbat gauean akanpada egin dezake Iturengo enbaltsean. Aipatu, larunbat gauean akanpada parte hartu nahi duenak, Iturenen kokatuta dagoen Malerrekako Kirol Elkartearen

594302 telefonora deitzea bertzerik ez duela, edo bertzenaz tiendakanpaina eraman eta enbaltsean akanpatu.

Igandean, Mendaur mendiaren tontorreraino igotzen da goiz goizetik eta bertan, nahi duenak, meza entzun dezake (lehenengoa 10etan eta bigarrena 11etan), ondotik eta ohitura bihurtzen ari denez, enbaltsean etxetik eramandako bazkariak bazkaldu. Erromeria honekin bukatzeko, Iturengo plazan dantzaldia izanen da EGAN Taldearekin, bertan bertsolariak ere izanen direlarik.

Kiosko berria egiten ari, Ituren eta Zubietako Udalen artean

Orainarte bi herrietan kanpoko kioskoak erabiltzeko beharra izaten zen. Aurten ez da horrela gertatuko, izan ere, Ituren eta Zubietako Udalak kioskoa egiten ari baitira. Lana, Doneztebeko San Miguel-i enkargatu zaio.

"Ama begira zazu" antzerkia Iturenen

Principe de Vianak antolaturiko Udaberri Jira Biraren barruan, "Ama begira zazu" teatroa izanen da ekainaren 16an, larunbata, gaueko

10etan. Antzerki hau komedia bat da, gustora irri egiteko. Egon den leku guztietan kritika eta harrera ona izan du. Aktoreak Mikel Garmendia, Kontxu Odriozola, Jose Ramon Soroiz eta Elena Irureta dira, Eneko Olasagasti zuzendaria eta Elena eta Kontxu dira obraren idazleak. "Eguneroko euskara xehean" egin dago eta sei zati ezberdin eta umoretsutan banatua.

Lau zakur hilik

Azken aldi honetan, baten bat, berak jakinen du zerengatik, badabil zakurrak pozoiaz hiltzen. Dagoeneko lau zakur hil ditu eta gainera erran beharra dago egun berean hil

zirela. Geroztik, beldurragatik edo, ez da zakurrik ikusten karriketan.

Informatika ikastaroa

Maiatzaren 17an hasi zen eta harrera ona izan du. Ikastaro honetan Testu Prozesatzea, MS2a eta bertze hainbat programa ematen dira, interesgarriak bulego edo ofizinetan lan egiten dutenentzat.

Bertzalde, saskigintza eta makrame ikastaroa bukatu da eta momentuz, ez dute erakusketarik egiteko asmorik. Negutegi edo inbernadero ikastaroan, dagoneko, landare eta barazki ederrak egin dituzte.

ZUBIETA

JUAINAS

Udako martxa ari dela, landan belarretan, ... juergetan. Neska mutiko gazteek azken talde haundia gero eta gehiago atetzen da, eskola hustutzen den arabera. Hustuz hustu, ohitu gara, gero eta haur gutxiago ikusten baino, oraingo hontan... **Inma**, badoa konfidantzaren abusua izanen ez delakoan esaten dut, azken finean genuen maistrak alde egin behar duela neri esatearekin berak arrisku bizian kokatzen zela bazekien. Penatua doa, arras, urteetan ezagutu eta maitatu izan duen giro eta haurrak utzi behar bait ditu. Bestalde, besterik ez bada ere, ikasle kopuruaren murrizpenak ikatzen du. Agur bero bat emanen diogu hemendik, gurasoak

besteren bat emanen diotela espero dugularik. Oroigarri bezala gaur, maiatzaren 16an grabatu duten bideoa eraman dezala.

Baina denak ez dira noski, berri tristeak... aurreko alearen giroa segituz beste obra bat aipatu behar baitugu.

Frontoiaren moldaketa, ez da haudituko, ezta estalkia jarri ere, are gutxiago, hori nola egin ongi ez bait da ikusten. Bihar bertan ez bada hasiko ere, dena den subentzioa lortu da: zerbait da! haurrak pilota eskolan ari dira, afizioa piztu nahian, kirolak indartzea ongi legoke, gazte horiek sasoia nonahi bota behar dute eta... hara hemen frogatzen... iazko festetan moto krossa nola egin zen?... ba aurtengoa prestatzeko Etxeberriko eskilarak baino leku

hobeagoa ez dute harrapatu. Zirkuitua antolatu beharko da!



GARE Saneamenduak

Mobleak eta bainurako tresnak

Iturgintza eta kalefakzioa

Legia 34 — BERA — Tfnoa: 63 04 87

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

Baztango Udalak 940 milioitako aurrekontua izanen du aurtan

Dokumentazio horren berri, udalkide guzietan eman zaie

J.M.I.

Iazko aurrekontua 654.238.558 pezetatakoa izan bazen ere, aurtengo oraindik haundiagoa izanen da, 940.153.455 pezetatara ailegatuz.

Sarrerei dagokienez, nabariarenak "Fondo Provincial de Haciendas Locales" delakotik hartuko dira, 266.132.247 pezeta; Oronotzeko BUP Eskola dela eta 64,2 milioi, MECek emanak; mendietatik 20 milioi eta 56,5 lberduerok jarriko di-tuenak argi-indarra sartzeko.

Gastuei dagokienez berriz, Udal-langilegoaren soldatak eramane-n dute 261 milioi eta egin gogo diren inbertsiorik nagusienak hauexek dira: 222 milioi argi-indarra sartzeko, Irurritako frontoia 59 milioi eta luberriak ateratzen 20 milioi.

Lekarotzeko ur-horniketa-rako obrak

Lekarotzeko ur-horniketa zabal-tzea eta haunditzea onartu zuen berriki Baztango Udalak. Obrak, J.B. Iturria S.L. Eraikintza enpresak egi-nen ditu eta guztira 28.430.831 pezetatako aurrekontua du.

Polikiroldegi-zaindari lanpostu deialdia zabalik

Baztango Polikiroldegia zaintze-ko, garbiketarak egiteko, instalazioen mantenimendua eta sarreretakoa kontrola eramateko eginzuna izanen duen lanpostuaren deialdia zabalik dago. Informazio gehiago Balleko Herriko Etxean.



Arkupekoek herriko besta ospatu zuten

Meza, jokuak, bazkaria eta dantzaldia

MAÑONE

Maiatzaren 3an herriko besta ospatu zuten Arkupeak elkarte-koek. Ospakizuna Elizondoko eli-zan hasi zen meza batekin, eta ondoren txapelketak egin zituzten karta joku ezberdinetan: musean, txintxonean, ipurtzikinean eta sei-koetan. Eguerdian bazkaria. Arratsaldean urdaiazpiko baten zozke-ta egin zuten eta ateratako dirua Argentinatik ekarri nahi dituzten euskaldunen bidaia ordaintzeko izanen da. Gero, dantzaldia ilundu arte.

Baztango mendigoizaleak Auritzeko azokara joan

Maiatzaren 6an, Baztango

mendigoizaleak Auritzera joan ziren, han ospatu zen azoka ikus-teko. Elizondoko plazatik 60 lagun atera ziren eta Irlintzi, Basalar, Urruxka, Aldude (herriko trinke-tan gosaldia zuten), Urepel, Haur-zai, Burdinkurruntx, Lindux, Tro-na eta Suringiatik pasatu ondoren Auritzera ailegatu ziren zazpi orduren buruan. Azoka ikusi eta bazkal ondotik autobusez itzuli ziren.

XI. Baztan-Erreka laxo Txapelketa hasi da

Aurtengoan, bi multzotan bana-turik, 10 taldek jokatu dute. Fina-la Arraiotzen jokatu da abuztua-ren erdi aldean.

Maiatzeko Erromeriak

Orain kontatu behar dugun hau, duela 30 urte gora-behera galdua den ohitura bat da

KORO IRAZOKI

Maiatzeko hilabetea ailegatu eta belai, baratze, arto eta beste eremu guztiak nolazpaite babesteko egiten ziren erromeri edo prozesione batzuek herriko bost gurutzetara. Egun desberdinetan egiten ziren: egun batez Martinekorat, bestean Bixkarrekorat, bestea luzexeagoa zen: Ainarakorat igan eta handik beheiti etorri Gandeseneko kaskorakorat; eta azkenean luzeena eta pollitena Maiatzaren erdian izaten zen, 15ean San Isidoren egunean: Mendibilgo mendirat igaten zen oinez —apeza eta sekretarioa zaldiz— monagillo batek bizkarrean erematen zuen sagar eta naranja multzu bat makilez eta iltze puntaz eginiko traman-kulo batean ziztatuak —gero monagillo eta apezen artean partitzen ziren— eta ia Mendibilgo kaskoan gurutzearen aintzinean apaizak bedeikatzen zituen lurrak, beste egune-tan beste gurutzetan egina zuen bezalaxe.

Gero bueltarakoz indar galduak berriz biltzeko, gosaltzen zen hantxe berean, kantari eta umore onean, Pikatxarreko-bordakoei prestatzen zituzten arrain batzuk apezarendakoz eta bertze guztiak eremana zi-



San Isidrotako besta

tuzten janariekin. Hunen ondotik berriz malda beheiti hartu eta denak etxerat usaiako lanetarat.

Erran dugun bezala, hau galdua den ohitura da, eta nekazariak beti izan dute beren pena horregatik, bainan joan den urtean seriooki pentsatuz erabaki bat hartu zuten: Mendibil alderat pista edekia da eta orain ez zuen grazia-rik izanen harat joatea, horregatik zerbaite iduritsu egiteko antolatu zurten San Isidro egunean meza bat egitea Alkerdiko kaperan —Zugarramurdi eta Urdazubiko tartean— horrela bi herriko

nekazariak elkartzeko, eta hunen ondotik *Armuan* bazkari eder bat egin.

Aurten ere halaxe egin dute, eta Don Justinok mezan bota zuen abisoaren ondotik —*heldu den astartean San Isidro nekazarien besta, Alkerdiko kaperan izanen dugu meza eta ondotik Armuan MESA*— 31 lagun bildu ziren gogotik San Isidro laguntza eskatzeko alde batetik eta arratsalde bat elkarrekin gustura pasatzeko beste aldetik.

SARA

Kirol solas

Sarako Rugby-lariak Frantzia mailako txapelketan...

OLAIN ELKARTEA

Maiatzaren 13an, igandez finala laurdenak zirela eta Sarako Rugby taldea aritu zaigu Cornebarrieu-ko

taldearen aurka eta aise gairitu dituzte gainera. Badirudi aurten, indarrean daramatela Rugby Sasoina eta emeki emeki, helduko direla merexi duten heinera. Beraz heldu

den igandean, final erdia jokatuko dute. Suerte on kirolari eta kiroltzale guzietarako.



(bertze aldean segitzen du)


Saran, Herri Urrats gaua

OLAIN ELKARTEA

Joan den larunbatean, Maiatzaren 12an, Sarako Olain elkarteak antolatu Herri Urrats gaua ezin hobekia-go iragan da. Nahiz eguraldi aldetik kezka eta arazo batzu izan, gauean bildu da jende alde bat gaitza eta besta normaltasun osoan jarraitu ahal izan da. Besta honen bitartez, Saratarrek urtero bezala beren laguntza ekartzen diote inguruko ikas-toleei baita ere Euskarari.

Gau hontako mozkina auzo herrietako ikastoleri eskainiko da, azken urte hauetan bezala, doi bat diru beharren estaltzeko gisan.

Bertzalde, larunbat aratsalde



Eta biharamonean, Herri Urrats eguna

apalean, "Egunkaria sortzen" taldea ere agertu zen, Saran. Karia hortara, arduradunek aurkeztu zituzten

bere asmoak. Geroak emanen du erakusterat zer egiterat helduko diren.

GOIZUETA

Eskolako haurren akanpada

KORO ETXEBERRIA

Goizuetako eskolako haurrentzat, orain arte egin diren txangoen orde, bizpahiru egunetako akanpada edo antzekoa antolatu dira. Ekainaren 18tik 22ko aste horretan burutuko direlarik. Lekuak: Lizarra, Ultzama eta beste bat izango dira.

Akanpada hauetara 8. mailakoek ez ezik gainerakoek dute joateko aukera. Maila hontakoak ohitura den bezala Benidorm aldeira joango dira astebeterako aste hortan bertan OHOri agurra emanez.

Ekitaldi honen helburuak orokorki, hauek izango lirateke: heuren arteko harremanak sakondu, familiarik urrun moldatu, beste lekuak ezagutu ea.



Herriarentzako ura aseguratzeko

P.A.

Hain leku menditsu eta euritsua izanagatik, herria ez da beti urez ongi hornitua egoten, udaldetan batez ere, erreka ura behin baino gehiagotan hartu beharrean aurkitu

delarik. Eskasiak ahaztu nahirik obratan sartua dago Udala. Goikotuturri alderdian bost ur iturri berri bildu eta hoditeria (tuberia) nagusiarantz sartzeko obrak. Gostarioa: 7.164.765 pza.



Eskuzko pilota jokua bizirik

Pilota jokoa ez dauka osasun txarra Goizuetan. Eta hara, bestela, zenbat txapelketetan parte hartu duten hemengo ume eta gazteek 1989. go. urtean: Eskolarteko Txa-

pelketa, Herriartekoa eta Euskadi-koan; Goizuetako Txapelketa, Lekunberrikoa, Hernanikoa, Errenterikoa, Irungoa, Irurtzungoa, Tafallakoa, Baztangoa, Burlatako "Retegi" txapelketa. Ohi diren lau mailetan parte hartu dutenez gero, batezbesteko 8-10 gutxienez ibili dira, ordez-

koak kontutan hartuz gehiago ere kontatu behar ditugula. Iaz 9 txapela etorri dira Goizuetara.

Hala ere herrian pilota kirolarako joera eta zaletasuna mantentzeko saiakera da estimagarriena: txapelak honen ondorio eta seinale dira, azken batean.

LEITZA

Nobedadeak San Juan bezperarako

Lehenik suak piztu eta gero... animazioa goiz alderarte

EUSKALTEGIKO IKASLEAK

Aurrera kirol elkarteak datorren ekainaren 23rako jaialdi bat antolatzen ari da. Jaialdi honen helburua hau da:

Aurrera kirol elkarteak bere egoitzaren konpoketak direla eta, eta ondorioz 10 milioietako zulo ekonomikoan sarturik, diru pixar bat ateratzeko jaialdi bat antolatzea erabaki du. Jaialdi hau, urtero egiten den S. Juan bezperako afariarekin batera izanen da.

Azken urteotan egin ohi den bezala afaria norberak etxetik eramane du, ardoa eta ogia udaletxeak emanen duelarik, kafea eta kopa berriz Aurrera Kultur Elkarteak.

Gaueko hamarrak aldera jaialdiari hasiera emanen zaio. San Juan Suak piztu ondoren, Emanaldia hauek osatuko lukete: Trikitilariak, Leitzako Dantzariak, Aizkolariak, Leitzako bi harrijasotzaileak: Iñaki Perurena eta Mikel Saralegi.

Honen iraupena lau ordukoa izanen dela pentsatzen da, beraz, goizeko lauak arte gutti gora behera. Antolatzaileek herri guztia animatu nahi dute gau majiko honetan juerga pixkat egin bidenabar Aurrera Elkartearen konponketetan laguntzeko.

Esan behar da ere, afariak irau-

ten duen bitartean diapositibak ikusi ahal izanen ditugula plazako Frontoian.

Bestalde, Aurrera Kirol Elkarteak urtero antolatzen duen inguruarteko futbol txapelketan izena emateko

epea ireki du. Txapelketa Ekainaren 2an hasiko da, ekipo bakoitzeko inskripzioak 5.000 mila pezetetakoak dira, eta partiduak larunbat arratsaldean eta igande goizetan jokatu dira.



Zerga berezia zaborra biltzeko

M.K.T.

Udal plenoak, zaborrak biltzeko zerbitzua hobetzeko zerga bereziak kobratzeko expedientea onartu zuen. Bilketarako kamioi bat eta zaborrontzi batzuk erostea erabaki da. Zerbitzu hori herrian bizi direnentzako bakarrik izanen litzateke, baserriak eta auzoak kanpo gelditzen direlarik. Guzti honen aurrekontua, honako hau da: 14.100.000 peze-

ta kamioia erosteko eta 1.750.000 pezeta zaborrontziak erosteko. Nafarroako Gobernuak % 70a ordainduko du eta kamioia erosteko Larraun eta Aresoko Udallerriak 1.100.000 jarriko dute. Honen ondoren sortzen den defizita —3.725.000pzta.— zerga berezi horien bitartez estaliko litzateke. Etxebizitza bakoitzak 4.347 pezeta ordaindu beharko luke eta komertzio bakoitzak 5.795 pzta.

EZKONTZAK

Antonio Iribarren Iribarren eta **Karmele Indaburu Berau**, Elizondokoa eta Etxalarkoa, maiatzaren 12an.

Victor Zelaieta Ariztegi eta **Ainhoa Fernandez Arretxea** Elizondokoa, maiatzaren 12an.

Pierre Goienetche eta **Antoinette Salaberria**, biak Sarakoak, apirilaren 27an.

Jacques Lefort eta **Germaine Marchand**, apirilaren 27an.

Bernard Garbiso (Sarakoak) eta **Catherine Claude Hericher**, apirilaren 27an.

Alain Loustau eta **Isabelle Etchegarai** (Sarakoak), maiatzaren 5ean.

Pio Zugarramurdi eta **Eduardo Narbarte**, Goizueta eta Aranoak, maiatzaren 12an.

Jesus Loiarde Loiarde eta **Izaskun Loiarde Lujanbio**, Goizuetakoak, maiatzaren 5ean.

Jaime Altxu Ariztegi eta **Ana Elizalde Gorosterrazu**, Iturenkoak, maiatzaren 5ean.

Rogelio Barasoain Saez eta **M. Teresa Etxepare Arretxea**, Cordobakoa eta Lesakakoa, maiatzaren 5ean.

Jose Mari Yanci eta **Ana Irigoien**, Etxalarkoa eta Igantzikoa, maiatzaren 19an.

Juan Ramon Pikabea Zubieta eta **M. Nieves Mitxelena Barrios**, Berakoak, maiatzaren 5ean.

Martin Bengoetxea Mariezkurrena eta **M. Carmen Aldasoro Unsain**, Leitzakoa eta Anoetakoa, maiatzaren 19an.

Jesus Javier Zabaleta Zabaleta eta **Ana Carmen Lasa Armentariz**, Leitzakoa eta Goñikoa, maiatzaren 19an.

JAIO TZAK

Ander Maritxalar Narbarte, Lesakakoa, maiatzaren 7an.

Ane Verdi Arretxea, Narbarteak, apirilaren 11an.

Blas M. Andresena Zubigarai, Legasakoa, apirilaren 13an.

Miguel Angel Elizondo Etxenike, Beintza-Labaingoa, maiatzaren 10ean.

Agurte Maritxalar Salaberri, Igantzikoa, apirilaren 29an.

Jon Zelaieta Danboriena, Berakoa, maiatzaren 5ean.

Itxaso Arizmendi Atezetxea, Oronozkoa, apirilaren 30ean.

Leire Sarratea Sanzberro, Almandozkoa, maiatzaren 5ean.

HERIOTZAK

Jose Mikelperizena Zelaieta, Beran, maiatzaren 9an, 80 urte.

Manuela Juliana Aintziburu Etxenike, Arizkun, maiatzaren 1ean, 103 urte.

Maria Garcia, Saran, apirilaren 14ean.

Salbat Subelzu, Saran, apirilaren 17an.

Raymond Jauregi, Saran apirilaren 26an.

Vitoriano Inda, Ituren, maiatzaren 12an, 75 urte.

Ignacio Erasun Iriarte, Beintza-Labainen, maiatzaren 3an, 67 urte.

Jose Iarralde Ordoki, Igantzin, maiatzaren 5ean, 55 urte.

Concepcion Moriones Beltzungegi, Elizondon, maiatzaren 7an, 82 urte.

Maria Jesus Hermosa Laguardia, Elizondon, maiatzaren 7an, 66 urte.

Jose Luis Jorajuria Inarrea, Arraiotzen, maiatzaren 11an, 35 urte.

Eugenio del Campo Garcia, Iruitan, maiatzaren 13an, 68 urte.

Antonio Galarregi Etxenike, Elizondon, maiatzaren 14ean, 75 urte.

Petra Goñi Arraras, Leitzan, apirilaren 7an, 63 urte.

Catalina Arregi Urkiola, Leitzan, apirilaren 7an, 70 urte.

Funeraria edo ehorzketa zerbitzu berrien normalkuntza



Ehorzketa zerbitzu edo funeraria mailan Nafarroako gure alderdia nahiko utzia eta atentzio gabeko zona zen.

Bertze Nafarroako alderdietan zerbitzu hau normalizatua zegoen orain dela urte batzu.

Orain urtea inguru ireki zen zona mailan funtzionatzeko ehorzketa zerbitzua edo funeraria.

Maldaerreka S.A. da hain zuzen ere bere izena eta zerbitzuak arintzeko, Iruñeko *Hospital de Navarrako* tanatorio publikoarekin akordioa egin dauka, baita

SOS Navarrarekin ere. Baztan, Bertizarana, Malerreka, Leitzaran eta Bortzirietako herrietako beharrak normalizatzeko.

Zerraldoak edo hil kutxak, eskelak, mediku, juzgadu eta sanitate paperak, hilarriak, panteoiak, gorpuen trasladoak, Nafarroan eta kanpora.

Eguneko 24 orduetan funtzionatzen du 63 74 04 telefonoaren bitartez eta edozein kontsultarako, bere helbidea Lesakako Bittiria Karrikako 6.ean dauka.

IRUBIDE

ostatua
erretegia

LESAKA — 63 71 27

GOZOTEGI-JAIONE



Itzea 3. - BERA - 63 07 86

BOAN TALLERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

KONTZERTUAK

ATXASPI

OSTATUAN

Ortziral gauetan
LESAKA

Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortziria, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara zabaltu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

“Uxane ikastegia”, hamar urtez pertsona gutxiak zuzpertzeko ahaleginetan



Hamar urte dira aurtan Bortzirriak eskualdean elbarritasun mental moztaren bat daukatenentzat ASPACE erakundeak Beran “Uxane ikastegia” zabaldu zuela. Gauza aunitz gertatu da denbora honetan barrena egitasmoa abiadan jarri zenetik; berezia izanez berez, berezia ere izan da bere izatea, oztopo eta arazoz beteriko ibilbidea eginez.

Hala ere, ildo honetatik egin ziren ahaleginak aitzine-tik datoz; 1976-77an Bortzirietako burmuin elbarritasunik zeukaten umeen guraso talde bat bere ekimenaz Donostia aldera zuzendu zen, egoera hartan zer egin zitekeen aztertu asmoz, horretarako irtenbide egokiren bat bilatzen saiatuz.

Bertan ASPACEekin harremanetan jarri ondoren, sendagile bat etorri zen Bortzirietara egoera zertan zetzan ikusi eta eragindako biztanle-goaren errolda edo zentsoa burutzeko. Kasu bakoitza aztertu ondoren eta bertze akatsik zeukaten pertsonak bereizi eta batzutan osabidean jarri eta gero, hamar neska-mutil, 14 urteko adina gutxienez zeukaten

guztiak hartuak izan ziren Donostian matrikulatuz. Aldi berean, Eibarren oharkari edo monitore talde batek lau hilabeteko trebakuntza ikastaro trinkoan parte hartu zuten.

Ikastegiaren sorketa

Herrialde arrazoiengatik, 78-79 ikastaroan matrikulaketak Iruñean eginda, Uxane auzoko eskola zaharra kokaturik egondako etxean — hortik datorkio Ikastegiari duen izena — prestatu zen hasieran Ikastegia. Urte bat geroago herrigunera jeitsi ziren, koartel zaharreko etxean sarturik aurkitzen direlarik gaur arte.

Heziera berezira-ko Ikastegia

“Jendearen artean egon behar da besteen mailan egoteko”, diote

Isabel Pardo eta Mila Bidegain arduradunek, berekin dituzten 16 eta 34 urteko adinen artean aurkitzen diren zortzi ikasleetaz. "Besteen antzekoak izan daitezten saiatzen gara gure lanarekin", eranstean dute.



Une honetan Ikastegiak duen zeregina iharduera lantegi batenarena da, "hemen, OHOn arazoak izan dituztenak edota atzeratuak geratu direnak daude eta bizitzak egunero eskatzen dizkien gauzak ikasten dituzte, garbitu, jantzi..., norberaren autonomia lortzen saiatuz, baita sukaldaritza, eskulanak, jantzigintza ere beste lantegi batentzat lanak eginez; beti bakoitzaren gaitasunaren araber".

Lanbide toki eta etxebizitza

Baina, etorkizunari begira helburuak besteak dira. Horien artean, lanbide tokiaren sorketa da garrantzitsuenetarikoa bat. Hemezortzi urteko adinetik aurrerakoentzat litzateke, beren hezkuntza eta edozein lanbide-tararako prestaketa lortu ahal ditzaten. Horrela, "ohizko enpresetan lanik ezin egin dutenez eta irtenbideren bat izan dezaten, beste lanetarako gai diren pertsona hauek besteren lan moztetarako balioko luke adierazitako lantegiak", darraite aitzinago bi monitoreek: "egitismo hau

azterpenaldian aurkitzen da, horretarako aurretik beste arazoak ere zuzendu beharko direlarik, hala nola, zer-nolako jendea sartuko litzatekeen, garraioa beste herrietatik etortzeko, dirulaguntzak eta abar".

Lortu nahi den beste helburua etxebizitzaren da. Era honetan, "urteak aitzinera doaz eta pertsonen ingurumenak aldatu egiten dira, familiarena batez ere, zenbait alditan dagoe-neko egoera larriren bat ematen ari delarik; guk uste dugu Iruñera eramatea ez dela irtenbiderik egokiena, norberaren herrian hainbeste urtez bizitza, denekin hautsiz. Arazo honi heldu egin behar zaio, etxebizitza bat antolatuz, oraingo bizitzatik ez

urruntzeko; etxebizitza honek Ikastegi edota Lantegitik hurbil egon beharko luke; guzti hau denori dagokigun kezka eta arazoa dela uste dugu eta datozen hilabeteetan proposatuko den gaia da, nolabait helduz joan behar delako", adierazten dute.

Zer da elbarri mentala?

Munduko Osasun Erakundeak, (OMS)ek, dioenez "ezagupidearen arabera, osagintzan egitura edo erakuntza psikologiko, fisiko edo anatomikoaren galera da akats bat edukitzea". Akatsa burmuinean kokatzen denean, bi moztetako egoerak sor ditzake: eragin arina jasaten dutenena alde batetik eta 70eko koefiziente mentalara iristen ez direnena bestetik, hauek elbarritasun mentala daukatelarik gehienetan ere akats fisikoren batekin azalduz. Duela bi urte egindako erroldan oinarrituz, estatistikak erakusten duenez, Bortzirietan, 8.491eko biztanlegoan 62 (% 0,74a) akasun mental daude, berorietatik 13 (% 20,96a) direlarik burmuin elbarriak.

ESKUALDEA	POPULAZIOA	AKATS MENT. DUTENAK		AKATS MENT. DUTENETIK	
		Kopurua	%	Burmuin elbarriak	
Bortziriak	8.491	62	0.74	13	20.96
Malerreka	5.079	35	0.70	1	02.70
Baztan Urdazubi + Zugarram	9.055	69	0.76	5	07.40
Leitzaran Goizuet+Arano+Ares	4.203	22	0.52	3	13.40

Datu hauek orain dela 2 urte jasotakoak dira

ROMAN HARRIBILAGA

Gabriel Saralegi:

"Aizkolaritzarako zaletasuna mantentzeko, aizkolari onak behar ditugu"

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren zuzendari aukeratu duten Gabriel Saralegirekin elkarrizketatzerakoan, aizkolari bat izan dugu parean baina pertsona, pertsona *handi* batekin topo egin dugu. Hitzegiteko seriotasuna, irrifar goxoaz hornitu du.

duela egun batzuk jakin genuen, Nafarroako Herri Kirol Ardura-dun izendatu zindutela, zertan da *titulo* hori?

Bai, Martxoaren bukaran Nafarroako Herri Kirol Federazioaren zuzendari aukeratua izan naiz, kirolariak aukeratua hain zuzen ere. Baina, gure helburua, denen artean gure kirolak indartu eta zabaldu. Lan horretan ni bat gehiagorik ez naiz.

Dena den erresponstabilitate handia duenez, zer eragina du zuregan?

Jendea, gu, kezkatuak geunden. Nafarroan ez bait zegoen beste probintzietan dagoen laguntzarik eta kirolari bakoitzak bere bizi-modua egiten genuen. Orain denbora banatu beharko dut, gauza gehiago egin beharko bait dut.

Ardura guztiaz aparte, aizkolari ospetsua zaitugu. Modu ikusgarriak

kaleratzen dituen aizkolaria. Baina honen aldeko zaletasuna mantentzeko, modu espektakularrak asmatu behar al dira?


Aizkolaritzarekiko zaletasuna mantentzeko aizkolari onak behar ditugu, batez ere gazteak, berriak... aizkolari gaztea sumatu ezkerro laguntza eskeini behar zaio. Gero haundien tartera etortzen bada berak zaletasuna sortu eta zabalduko du.

Aizkorakada batez zer moztu edo hautsiko zenuke mundu, gizarte honetan?

Txarkeria edo aurreko argia ikusten uzten ez diguten sasi horiek.

Aizkolaritzan deusezte, suntsitzea al da dena edo sortarazterik ba al da?

Ez, ez da dena haustea, deusezte, gaur egun aurretik botata dauden enborrak bakarrik. Bestalde tentsio eta sorpresa asko sortarazten ditu, ikasle ar-



tean, harremanak jende askorekin eta lagun ugari bazter guztietan, eta teknikoki gure kultura dotore zabaldu.

Munduan zehar, Euskal Kirolak garrantziarik aurkitu al du?

Dudarik gabe, gaur Euskalerriko kirolariak erruz ateratzen dira edozein lekutara. Hego edo Ipameriketara, Europar zehar, Australia edo Japonia aldera. Honek erakusten digu garrantzia baduela.

Enborra zutik eta zu hartan zaudela, behean jendea begira, zer pentsatzen duzu lehen aizkorakada eman aurretik?

Ahal dudan azkarren ebaki beharko dudala. Bestela aspertu egingen bait dira.

Zer egingen zenuke ebaki behar duzun enbor batez?

Gauza asko, gure inguruan ditugun gauza guztiak erabiltzen ditugu gure onerako ustez eta enbor batez edozeinen mesederako edo zerbitzurako balio duena.

Hainbeste aizkora eta enbor utzirik naturatik ze imajina datorkizu gogora?

Mendiko txepetxa.

Eta aizkorakada batez moztuta balitz bezala, bere ahots leuna ixildu da. Bapateko galde-erantzun saioa ongi bete den pentsatuz. Suerte handia desiatzen dizugu, zure partetik indarririk ez bait da faltako, euskaldunon ezaugarri horiek aurrera eramateko...

MIKEL ILARREGI

LUR APAL

Lesakako Mekanoterapia Zentrua


Beharbada, mekanoterapia edo gimnasia motorizaturik ez dugu jakinen. Hau egiteko mahai berezi batzuk erabiltzen dira eta indar fisikoa hauek egiten dute; hauetan giharre jakin batzuren kontrakzioa eta lasaitzea denbora neurtu batetan egiten delarik. Adibidez, 90 abdominal egiten dira 10 minututan, eta horrela giharre hori lantzea lortzen da.

Sei dira erabiltzen diren mahaiak, eta 10 minutuz jarduten da mahai bakoitzean. Egokiak dira artritisa-arentzat, bizkar hezurreko oinazeentzat, asma eta bihotzeko gaixotasunentzat, baita zain eta zango haundituentzat.

Ordu beteko terapiarekin, artikulazioak zaulitu eta giharreak indartu egiten dira, ura gordetzen duten pertsonak hau botatzea lortzen dute bolumena galduz.

Edozein adinetako jendeak erabil ditzake baina ez engainatu, ez da pisua galtzen bolumena baizik.

LUR APAL Mekanoterapia zentrua, Plaza Zaharra 7, LESAKA. Telefonoa 63 70 11.



IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

ESTHER

ATEAK

Erakusketa eta salmenta

Zarailak

Kuadroen markoak

Tfnoa: 63 74 23

Zarandia, 5 - LESAKA

LIXOIA

Kafetegia - ostatua

Tfnoa: 63 01 84

BERA

TXOKO

ERRETEGIA

Bazkari, afari eta
gosariak ematen
dira

ITUREN

Tfnoa.: 59 44 91

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea

Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza tikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

Lesaka hoberena XLVII. Bidasoako Pilota Txapelketan

Zortzi tantoko aldeaz gailendu zitzaion Berari

ROMAN HARRIBILLAGA

Lesaka Txapeldun geratu zen iragan Maiatzaren 13an Udal frontoian Bera aurka XLVII. Bidasoako Pilota Txapelketaren barruan herrikako eran jokaturako finalean, iaz eskuratuta zuen txapela honela berretsiz.

Berrehunen bat zaleturen aurrean jokatu ziren partiduen garaipekin lesakar eta beratarren artean, nahiz eta bina lortu izan, lehenengoak tanteo osoan zortziko aldeaz zeukanez gero, txapelketa berarekin eraman zuen Lesakak.

Mailaz maila, partiduen emaitzak honako hauek dira: Etxepetelkuk eta Mitxelenak (Lesaka), 12;

Aranibar II.ak eta Saragueta II.ak (Bera), 16; kimuetan. Irigoienek eta Mitxelenak (Lesaka), 18; Oiarzabal II.ak eta Olazabalek (Bera), 3, Haurretan. Kastrok eta Almanozek (Lesaka), 6; Mikelperizenak eta Urkiolak (Bera), 18, gazteetan. Irigoienek eta San Migelek (Lesaka), 22; Irazokik eta Errandonea II.ak (Bera), 13, zaletuetan.

Mailakakoan Arantza nagusi

Txapelketa honen barruan ere, baina mailako eran, maiatzaren 6an, Berako Eztegarra frontoian jokaturako finaletan Arantzako ordezkariak

riek lortu zuten arrakastarik haundiena bi txapel eskuratuz, kimu eta haur mailetan; ondoren, Igantzi dator batekin, zaletuetan, eta Hondarribia batekin ere, gazteetan.

Era honetan, emaitzak hauek izan zirelarik: Agestak eta Errandoneak (Arantza) 16; Etxepetelkuk eta Mitxelenak (Lesaka) 2, kimuetan. Agestak eta Agestak (Arantza) 18; Irigoienek eta Mitxelenak (Lesaka) 13, haurretan. Aginagak eta Kamiok (Hondarribia) 18; Urkiola eta Mikelperizenak (Bera) 9, gazteetan. Txoperekin eta Oiarzabal I.ak (Igantzi) 22; Otxotekok eta Telletxeak (Lesaka) 13, zaletuetan.

XI Baztan-Erreka laxo txapelketa hasi da

Hirutanogei pilotarik hartuko dute parte

MAÑONE

Maiatzaren 13an hasi zen XI Baztan-Erreka Laxo Txapelketa. Hamar taldek jokaturako dute aurtengoan, bi multzotan banatuta: lehendabizikoan Doneztebe A, Elbete, Irurita B, Oitz A eta Arraiotz B arituko dira; bigarren Oitz B, Arraiotz A, Donamaria, Irurita A eta Doneztebe B-k osatzen dute. Finala Arraiotzen jokaturako da abuztuaren erdi aldean.

Txapelketa honen aurrekontua 550.000 pezetatakoa da pixket goiti beheiti, antolatzen duen Laxo El-

karteak jasotzen dituen diru laguntzak hauek direlarik: Nafarroako Gobernua, Federazioak, Aurrezki Kutxak eta Udaletxea. Baina laguntza ekonomikotik aparte laguntza morala behar dute antolatzaileek. Alegia, partiduetara ikusle gehixeago hurbiltzea eskertu egingen lukete, Baztan eta Malerrekan bakarrik mantentzen den kirol honek bizirik iraun dezan.

Txapelketa honetan 70 pilotari arituko dira, lanbide ezberdinak dituztelarik; ikasleak, bankariak, irakasleak, kamioilariak, Laminazioe-

tako langileak, e. a. Honek zaildu egiten ditu gauzak, kamioilariak aunitzetan igandez ateratzen direlako bidaian edo Laminazioetako langileak "korretornos"en aritzen direlako.

Azkenik, erran beharra dago Baztango Udala Lamierrita plaza konpontzen ari dela. Plaza berri honekin, Laxo Elkarteko kideek Baztangoizen talde berriak sortzea espero dute, gehienbat Arizkun eta Erratzun, gaur egun deseginak izan arren lehen izan bait ziren taldeak herri horietan.

Baztan-Bidasoako Herri Kirol Txapelketa lehenbiziko aldiz antolatuko da

Sortu berria den Nafarroako Herri Kirol Federazioa kirol hau indartzeko lehenbiziko pausoak ematen hasi da. Horrela, Baztan-Bidasoako Kirol Batzordeak Federazioarekin batera esperientzi berri bat bultzatu nahi du; hau da, afizionatu mailan Herri kirol txapelketa bat (liga sistema) eskualdean antolatuz, gisa honetan jideengan kirol honek daukan ikusgarritasuna eta edertasuna adieraztea nahiko litzateke.

ttipi-ttapa aldizkariko lehen hauek dei egiten diegu Baztan-Malerreka-Leizaran eta Bortzirietako herri guztiei eta kirol tal-

deei anima daitezen eta parte har dezaten.

Ohar bezala erran, asmoa dela apuntatzen diren taldeen herrietako bestetan, txapelketa honetako eliminatokiak egitea.

Probak: 1. *Soka tira (640 kilo)* • talde bakoitzean 8 sokatiratzailer eta 2 ordezkari; 2. *Proba konbinatuak (3 serieko lana)* • talde bakoitzean 7 lagun eta bi ordezkari, probak:

I. *kozkor apustua* pertsona bat, 15 kozkor bildu serie bakoitzean, II. *Txingak* pertsona bat, 50 kiloko txingekin 60 metro egin serie bakoitzean, III. *Aizkora* pertsona bat, 45 pulgadako enbor bati korte bat serie bakoitzean, IV. *Zakulari* 3 pertsona erreleboz, 40 kiloko zakuakin bakoitzak 80 metro egin serie bakoitzean, V. *Arpana* 2 lagun, 45 pulgadako

enbor bati 3 korte serie bakoitzean.

Oharrak: • Proba konbinatuetan pertsona batek ezin izanen du proba bat baino gehiago egin. • Soka tiran aritzen direnak proba konbinatuetan aritzen ahal dira. • Taldeak herriz herri ateratu daitezke edota herri bat baino gehiago elkartuz. • Epaileak Nafarroako Federazioak bidaliko ditu.

Inskripzioak eta informazioa: Baztanen, Tati Urrutia 58 00 06; Leizaranen, Inaki Perurena 51 01 03; Malerrekan, Mikel Ibarrola 59 43 02 eta Bortzirietan, Mattari Altzuar-te 63 70 05 telefonoetan. Epea, ekainaren 9 baino lehen izanen delarik.

MATTARI



Elgorriagako Paleta Txapelketa

MIKEL IBARROLA

Elgorriagako Udalak, Malerreka Kirol Zerbitzua sailaren bitartez, Lehenengo Paleta Txapelketa antolatu du. Partiduak 22 tantotara jokatzeko dira tenis pilotarekin. Jadanik, 16 pilotari apuntaturik daude honen ondorioz 150ren bat partidu jokatu-ko dira, maiatzaren 6an hasi zelarik ilusio eta giro haundiz.

Partaideak hauek izanen dira: Patxi Arrieta, Manuel Otxandorena, Jose Miguel Galarregi, Imanol Ibarra, Luis Olazar, Jose A. Martiarena, Jose M. Otxandorena, Jose I. Olazar, Pedro Mariezkurrena, Kiko Sukilbide, Santi Migeltorena, Samba, Antonio Eizagirre, Jose A. Mariezkurrena, Jesus M. Martiarena eta Paulino Etxeberria.

Josetxo Ezkurra I. Memoriala

Izen emate epea akitu zen apirilaren 25an eta antolatzaileok pilotarien kopurua ikusirik pozik gaude. 85 bikotek izen eman dute; prebenjaminetan 10 bikotek, benjaminetan 12 bikotek, alebinetan 11 bikotek, infantiletan 25 bikotek, gazteetan 10 bikotek, 2. zaletuetan 12 bikotek eta 1. zaletuetan 5 bikotek.

Maiatzaren 12an hasi da txapelketa, hasieran antolatzaileok Doneztebe eta Saldiasoko jaietan finalak egitea pentsatuta geneukan baina Nafarroako Herriarte Kirol Txapelketa hasi da eta pilotari aunitzek horretan ere parte hartzen dute.

MIKEL IBARROLA

Kari Agirre: "200 sendabelar motatik goiti hazten dira inguru honetan"

Kari Agirre
Bertizaranan jaio
zen,
Narbarten hain
zuzen ere. Orain dela
17 urte Leitzan bizi
da. Gaztetandik
sortu zitzaion baratze
eta belagietako
landare eta
belarrek dituzten
ezaugarriak ikas-
teko jakinmina.



Gaixotasun bakoitzarendako badago sendabelar egokirik

Z

era erraten digu Karik: "Gaztetan gure lehengusuek zuten baserri-
ra joaten nintzen eta ber-
tara, Lakoitzketa etxeko
amerikano bat etortzen
zen. Berak erakusten ziz-
kigun lore eta belar ba-
koitzaren karakteristikak.
Lakoitzketakoa zen baita
izen bereko botaniko os-
petsua, landareen euskal
izenekin hiztegi bat argi-

taratu zuena"

Belar gehienak ezagu-
tzen ditu: "Gaixotasun
bakoitzarendako badago
belar edo landare bat edo
gehiago. Adibidez, "li-
ñua" lasaigarri bat da,
"zain belarra" edo erda-
raz "llanten" deitzen
dena herri-izena, minbiziaren

kontrakoa omen da eta
beste gaixotasun batzuen-
dako ere balio du.

Modu guzitan jendeak,
oraindik, fede gutti duela
belarretan erraten digu
Karik: "Gehien erabiltzen
dena berbena belarra da,
osina ere... zerbait. Bai-
na hori beuren ezauga-

rriak ezagutzen ez direla-
ko gertatzen da. Belar eta
landareei beldur haundia
zaie, nik belar mota au-
niz jan ditut eta ez zait
inoiz ezer gertatu. Gauza
guziak bezala bere neu-
rrian erabili behar dira,
berbenen enplastoa adi-
bidez, denbora gehiegi
jarrita edukiz geroz kal-
tegarria izan daiteke.

Belar eta landareei
buruz bertze gauza aunitz
erran zizkigun Karik bai-
na hemen lekuri ez dau-
kagunez bertze batean
kontatu beharko dizkizue-
gu.



PELLO ASTIZ

Kiromantzia

Eskuaren forma

Esku irakurketaren lehen pausoa, zein motatakoa den bereiztea da. Idazleak ez dira ados jartzen puntu honetan: bakoitzak gauza diferentek kontutan hartzen dituelako. Hona hemen eskola frantzesak egiten duen sailkapena:

Esku elementala:

Esku zola edo ahurra haundia eta lodia da; behatzak lodiak eta laburrak eta azkazalak ere laburrak. Esku klase hau daukaten pertsonak lan zakarretara ohituta daude, eskuzabalak dira, natura eta bizimodu apala gustatzen zaie baina ez kezka intelektualak.

Esku palotea edo espatula:

Estetikoki itsusiena, behatz puntak zabalak eta zanpatsuak direlako. Holako eskua daukanak, zentzu praktikoa du eta ekintzetara bultzatuta dago. Ez dago inoiz bere buarekin konforme, beti helburu hobe eta haundiagoren bat lortu beharrez dabil.

Esku karratua:

Ahurra, behatzak eta azkazalak nahiko karratuak dira. Praktikoak, langileak, lanean jarraitzen dutenak, arrazoitzaileak eta erlazioetan zuzenak. Beraien defektorik haundiena intuizio eta fantasi falta da.

Luzea da, hezurtsua, behatzen

juntak kozkorrekin, azkazalak luzeak eta borobilak.

Pertsona logikoak, ekilibratuak, ikustatzaileak, eszeptikoak dirudite baina barrenetik guztiz idealistak dira, lorpen moralen ondotik dabil-tza. Kozkor edo korapilo haundie-giekin mesfidantza eta berekoitasu-na sortzen da.

Esku psikikoa:

Guztietan polite-na estetikoki. Luzea eta meharra... fina, korapiloric gabea. Intuizio eta irudimen haundiko pertsonak, idealistak eta senti-berak; honengatik, maiztan ez dira zoriontsuak izaten. Ez daukate sobera zen-tzu eta bizitzaren ara-zoei aurpegia emate-ko adorea falta zaie.

Esku mixtoa:

Auniztan topa-tzen dena, lehen ai-patutako ezaugarrie-tatik nahastekaxe hartzen duena. Honek, bizitzaren arlo bakoitzean modu ez-berdinez jokatzearagiten du. Gauza aunitz jakiten dira baina azaletik baka-rrik. Toleratzaileak eta lagun onak.



Hurrengo aleren batetan, esku mota bakoitzaren irudiak argitaratuko ditugu

FERMIN ALTZUGUREN

ETXEBIZITZAK

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Doneztebe.** Pisu bat alokatzen da bi bizitzako etxe batetan; baratze eta guzi. Hilean 12.000 pzta. eta 4 urtetarako kontratua. Tfnoa: 594054

-**Arantza.** Baserri baten berri ematen da. Argia, ura eta telefonoa- rekin. 3 hektarea. 7.500.000. Ezkalo. (948) 594054.

-**Doneztebe.** Pisu baten berri ematen da. Sukalde ekipatua, propa- no kalefakzioa, 3 logela, egongela lurko suarekin, despentsa, bainua eta ganbara. 90m² erabilgarri. 6.500.000 Ezkalo (948) 594054

-**Legasa.** Pisu baten berri ematen da. Sukaldea, 3 logela, egongela eta bainua. 90 m². 4.900.000. Ezkalo. (948) 594054

LANA

-**Denda batetan edo haurrak zaintzen** egin nahi nuke lan. 16 urte ditut. Tfnoa: 594054

-**Lehenbiziko eta zortzigarren** arteko mailako hurrei klaseak emateko prest nengoke, uda aldean Iturenen. Nahi dutenek dei dezatela 59 44 39 telefonora. Ituren.

-**Frantzes klaseak** Silvia Mazi- zior-ekin. Tfnoa: 630108

SALEROSKETAK

-**Hiru bizikleta** salgai. 2 karrerakoak, ttikiak, 5.000 pezetatan bakoitza. Bertzea kroseta bat, amortiguadore eta plato ttikiarekin 10.000 pezetatan. Deitu Lesakako 63 77 86 telefonora.

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-**Sukalde eta frigorifiko** indus- trialak saldu edo etxerakoez aldatu nahi ditugu. Tfnoa: 637 854

-**Idazmakina elektronikoa** sal- tzen da. CANON markakoa. Intere- satzen bazaizu deitu 631188 telefo- nora.

-**Era guzietako mobleak** erosten ditut. Eskura ordaintzen dut. Tfnoa: 59 40 54

-**Kanpin denda eder** bat salduko nuke, merke, konbenientziako pre- zioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Astebu- rutan fijo, astegunetan atsaldez eta gauez.

-**Baserri bat dago salgai** Bazta- nen; lasaitasunez betetako "Orabi- dea" parajea. Belagi eta bertze hain- bertze herri-lur roturatuak erabiltze-

ko eskubidea. Kontaktatzeko deitu 58 90 11 telefonora.

-**Bigarren eskuko altzarien** be- rri ematen da. Egokiak alokatutako pisuak mogleztatzeko. Tfnoa: 594054

-**Akordeoi bat daukat** saltzeko. 96 bajoko Parrot markakoa. Urte batez erabilia eta hagitz ongi dagoe- na. Tfnoa: 515046 Saldias.

DENETARIK

-**Trikitixa eta panderoa** jotzen ikasi nahi al duzu? Guk irakatsiko dizugu Sunbillan. Josune eta Ain- hoa. Deitu aste tartean (943) 625048 telefonora.

-**Pegatina kolekzio** bat egiten ari naiz. Sobrante dituzuenak, bidal it- zazue direkzio honetara: Aintzane Erkizia, Legar Baratzea 2, 3.D, Lesa- ka.

-**Tasazioak egiten dira.** Etxeak, baserriak, mendiak, bordak... Ezka- lo. (948) 594054

HARREMANAK

—Gure bihotzeko marrubizko goxokia. Zer egingo genuen zu gabe? Hain jostun jatorra zu. Ostaizka eta K.I.

-**Etxalarren** bizi den heavy-ari sedazko pijama polit bat erosi dut eta ekainaren 3an estrenatzea pentsatu dut neregana etortzen baldin bazara. Urantzu.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBAL- DEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



				▼		▼		▼	"O" eta "I"
			Esku- langile		Leku		Arrantza tresna		falta dira
			▶		▼		▼		▼
			Sagardora ko trsena	▶					
			Pesimista						
			▶						
	▼		Haizea	▶					
Zabaldu			Potasioa						
▶		▼	▼		Roentgen	▶	Infusio	50	▶
					Emakume izena		mota	Euskal	▼
550	▶		Kuttuna	▶		▼	▼		
Erran dezagun			Biguina						
▶			▼			Interjek- zioa	▶		
						Mota			
Araba- tarren atorrak	▶					▼	Atzizki femeninoa	▶	
Guda							Gantzak		
▶					Bizk. Azeri	▶	▼		
					Kontso- nantea				
52	▶			Aztien kartak	▶	▼			
Mend. Bazen				Nago					
▶				▼	Musika nota	▶		Kontso- nantea	▶
					Bilo			Modua	
Rutenioa	▶		Auhena	▶	▼			▼	
Irekidura sakon			Bokala						
▶			▼			Ez eme	▶		Nitrogeno
						Uranioa			
Bi	▶		Zuen	▶		▼			▼

☐ Senda belarrak

ENBIDO

Anarcha (1051) ... in
sortitum est Uerdasacu (1058) ... in
basconea lingua Mussiturria (1060) ...
quem bascones vocant Agurai Mendico
(1085) ... dicitur a rusticis Aker (Altua.
(Nos possumus dicere "Saltus ircorum")
(1076) ... faciet ut lingua navarrorum
dicitur unamaister et Aceari lmea
faciet bascu ... lamada en

EUSKARA, DENONA

Euskera, de todos.

NAFARROAKO EUSKARARI BURUZKO I.
ERAKUSKETA OROKORRA

EKAINAK 26 - UZTAILAK 6

HERRIKO ETXEA LESAKA